Azpeitiko Udala

**UDALAREN JABETZAKOA DEN ENPARAN KALEA, 6 ERAIKUNTZAN DAGOEN LOKALAREN ERABILERA GIPUZKOAKO MINBIZIAREN AURKAKO ELKARTEARI UZTEA.**

Azpeitian, 2021eko ekainaren 8an

ALDE BATETIK, **NAGORE ALKORTA ELORZA,** AZPEITIKO Udaleko alkate-udalburua, Toki Araubideari buruzko legeriak emandako eskumenak erabiliz, zehazki, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan oinarrituta.

(Aurrerantzean, "**Azpeitiko Udala**" edo "**Udalak**")

Azpeitiko Udala
ALKATETZA

BESTETIK, **JUAN MANUEL ORMAZABAL JORDANA,** AECC MINBIZIAREN AURKAKO ESPAINIAKO ELKARTEAREN lehendakaria Gipuzkoan, bere estatutuek emandako eskumenak erabiliz.

**ASOCIACIÓN ESPAÑOLA CONTRA EL CANCER -AECC-** elkartea Elkarteen Erregistro Nazionalean 1966ko irailaren 29an inskribatua dago, 1 taldean, 1-Elkarteak sekzioan eta 3827 zenbaki nazionalarekin.

(Aurrerantzean, "**Gipuzkoako Minbiziaren aurkako Elkarteak**" edo "**Elkarteak**")

Elkartearen helbidea Gipuzkoan honako hau da: Bartzelona Etorbidea, 6 20014 Donostia -gipuzkoa@aecc.es-.

## ADIERAZTEN DUTE

I. Azpeitiko Udala "Baigera" izenarekin ezaguna den Enparan kalea, 6 zenbakian dagoen higiezinaren jabea da; gaur egun, Udaleko Gizarte Zerbitzuen Sailak kudeatzen du, bere eskumeneko jarduerak egiteko edo zerbitzuak bideratzeko.

Hitzarmen honen xede den ondasun higiezina behar bezala inskributatuta dago Udalaren Ondasun Higiezinen Inbentarioan, 1.1.00003 zenbakiarekin.

II. 1953. urtean sortu eta 1970tik onura publikoaren deklarazioa duen minbiziaren aurkako elkarte honek Gipuzkoan duen egoitzan minbiziaren aurkako borrokan ezagutzak eta gaitasunak partekatzea eta trukatzea du helburu, bai eta minbiziarekin bizi diren pertsonei ahalik eta arreta onena ematea ere, eta horretarako hainbat jarduera bideratzen ditu. Horien artean daude: -banakako eta

taldeko arreta psikologikoa bai gaixoentzat edota familiakoentzat, -gizarte-arreta, -erretzeari uzteko terapiak, -ortopedia-materialaren prestamoa, - Lagun egiteko boluntarioak, - Eskea, -Prebentzio-kanpainak, -Tailerrak, -Ibilaldi osasungarriak edota loteria saltzea.

Gipuzkoa mailan 33 urtez ari da lanean Elkarte hau. Gaur egun 13.476 bazkide ditu, eta Elkartearekin lan egiten duten 980 bolondresek parte hartzen dute bertan. Lurralde osoan sei egoitza ditu, eta Azpeitiko herrian egoitza berri bat sortzeko egitasmoa aurkeztu dute Udal honetan.

*Egitasmoaren edukia hitzarmenari eranskin moduan atxikiko zaio.

Azpeitiko Udala
ALKATETZA

III. Egitasmo hori bat dator Udalak autonomia pertsonala sustatzeko eta mendekotasunak eragindako beharrizan pertsonalak eta familiakoak prebenitzeko eta horiei erantzuteko indarrean duen programarekin. Hori horrela, Gizarte Zerbitzuak sailak Elkartearekin lankidetza estuan lan egiteko aukera izango du, eta herritarrek aukera izango dute Elkarteak eskaintzen dituen jarduera horietan parte hartzeko.

IV. Azaldutakoaren arabera, eta jakitun izanik lagapenak onura ekarriko diela udalerri honetako herritarrei, lankidetza-hitzarmen hau sinatzen dute, ondorengo klausula hauen arabera:

## HITZARTUTAKOAK

### LEHENENGOA.- Helburua.

Hitzarmen honen helburua da “Baigera” izenarekin ezaguna den Enparan kalea 6 zenbakian dagoen eraikuntzaren hirugarren solairuko 3 zenbakia duen lokalaren erabilera lagatzea, bertan dauden altzari eta tresnekin batera.

Elkarteak astean bi egunetan erabili ahal izango du: astelehena eta asteazkena.

Erabilera-lagapena doakoa izango da, eta ezin da inola ere ulertu eskubide hori inongo alderdiren aldeko eskubide ekonomiko edo errentagarria denik.

Lagapenaren helburua da Azpeitiko eta inguruko herritarrentzat minbiziaren aurkako borrokan ezagutzak eta gaitasunak partekatzea eta trukatzea, bai eta minbiziarekin bizi diren pertsonei ahalik eta arreta onena ematea. Horretarako Elkarteak hainbat jarduera bideratu ahal izango ditu (II atalean jaso direnak).

Azpeitiko Udala

Helburu hori interes sozialekoa da, eta udalerri honetako herritarren onerako da.

**BIGARRENA.- Udalaren betebeharrak.**

1.- Udalak behin-behineko izaerarekin lagatzen dio Elkarteari zehaztu den lokalaren erabilera, BI (2) URTERAKO, beste BI urte luzatzeko aukerarekin.

Azpeitiko Udala
ALKATETZA

2.- Udalak ez du zuzentzen edo onartzen lagatako lokalean egin beharreko jarduera. Elkarteak ez du inolako mendekotasun-harremanik Udalarekin. Hala ere, Gizarte Zerbitzuak Sailak Elkartearekin lankidetza estuan lan egitea izango du minbiziarekin lotuta dagoen egoera bat bizi eta laguntza behar badu.

Bi erakundeak beharrezkoa izango dute datuen babesa arautzen duen legeriaren baitan beharrezkoa den hitzarmena sinatzea, eta edozein kasutan herritarrari beharrezkoa den baimena eskatuko zaio, bere datuak partekatu behar badira (hitzarmen hori jarduera hasi eta gehienez, hilabeteko epean sinatuko da).

3.- Konponketak eta berrikuntzak, lokalaren egiturazko mantentze-lanak egiteko, Udalari dagozkio; halakotzat hartuko dira eraikinaren egiturari, fatxadei, teilatuei eta kanpoko zerbitzu-hartuneei eragiten dietenak, betiere lokalaren erabilera normal eta arruntaren ondorio badira.

4.- Udalaren kontura izango dira lokalaren erabilerak sortzen dituen gastu guztiak. Bereziki, elektrizitate, ur, gas, berokuntza eta garbiketa ordainketaren ardura hartuko du.

**HIRUGARRENA.- Gipuzkoako Minbiziaren aurkako Elkartearen betebeharrak.**

1.- Gipuzkoako Minbiziaren aurkako Elkarteak lokala gehienez ere BI(2) HILABETEKO epean okupatu beharko du, eta funtzionamenduan mantendu beharko du gainerako epean, harik eta BI (2) URTEKO lagapen-epea edo, hala badagokio, luzatutako beste bi (2) urteko epea amaitu arte.

2.- Gipuzkoako Minbiziaren aurkako Elkarteak arduraz zaindu beharko ditu erabilera esklusiboko eta erabilera komuneko espazioak eta, oro har, higiezin osoarenak, baita altzariak ere, eta kide edota erabiltzaileek egin ditzaketen kalteen erantzule izango da.

3.- Gipuzkoako Minbiziaren aurkako Elkarteak lagatako jarduera baino ezin izango du egin.

4.- Elkarteak Azpeitiko egoitzan bideratuko duen programaren egoerari eta garapenari buruzko txosten-memoria aurkeztu beharko da urtean behin Gizarte Zerbitzuen Sailean, lortutako emaitzak baloratuta.

**LAUGARRENA.-Hitzarmenaren amaiera**

Hitzarmena iraungi egingo da bigarren klausulan aurreikusitako epea amaitzen bada, alderdietako edozeinek bere gain hartutako gainerako betebeharrak betetzen ez badira, gutxienez hilabete lehenago idatziz salatu ondoren, edo aldeetako edozeinek hitzarmena betetzea eragozten duten arrazoiak daudela erabakitzen badu.

**BOSGARRENA.- Hitzarmenaren izaera**

Erabilera lagatzeko hitzarmen hau administratiboa da, eta daukan lege izaerari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 9. artikuluan oinarritzen da (SPKL 2017); beraz, ez da zuzenean aplikatuko, nahiz eta lege horren printzipioak aplikatuko diren hitzarmena indarrean dagoen bitartean sor daitezkeen zalantzak eta hutsuneak ebazteko ( 2017ko SPKLren 4. art.).

Ondorioz, hitzarmen honen indarraldian sortzen diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioak ebatziko ditu.

****

Eta hitzarmen honen edukia berretsiz, goiburuan adierazitako tokian eta egunean sinatzen dute.

| | |
|---|---|
| **AZPEITIKO UDALA** | **AECC Elkartea** |
| Azpeitiko Udala<br>ALKATETZA | |
| NAGORE ALKORTA ELORZA | JUAN MANUEL ORMAZABAL JORDANA |

Azpeitiko Udala

**CESIÓN DE USO DEL LOCAL SITO EN LA CALLE ENPARAN, 6, PROPIEDAD DEL AYUNTAMIENTO, A LA ASOCIACIÓN CONTRA EL CÁNCER DE GIPUZKOA.**

Azpeitia, 8 de junio de 2021

POR UNA PARTE, **NAGORE ALKORTA ELORZA**, alcaldesa-presidenta del Ayuntamiento de AZPEITIA, en ejercicio de las competencias atribuidas por la legislación de Régimen Local, en base al artículo 21 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

(En adelante, "**Ayuntamiento de Azpeitia**" o "**Ayuntamiento**").

Azpeitiko Udala
ALKATETZA

DE OTRA PARTE, **JUAN MANUEL ORMAZABAL JORDANA**, presidente de la ASOCIACIÓN ESPAÑOLA CONTRA EL CANCER AECC en Gipuzkoa, en el ejercicio de las competencias atribuidas por sus Estatutos.

**LA ASOCIACIÓN ESPAÑOLA CONTRA EL CÁNCER -AECC-** está inscrita en el Registro Nacional de Asociaciones el 29 de septiembre de 1966, en el grupo 1, sección 1- Asociaciones y con el número nacional 3827.

(En adelante, "**Asociación contra el Cáncer de Gipuzkoa**" o "**Asociación**").

El domicilio social en Gipuzkoa es el siguiente: avenida de Barcelona, 6 - 20014 Donostia – gipuzkoa@aecc.es-.

## MANIFIESTAN

I. El Ayuntamiento de Azpeitia es propietario del inmueble sito en Enparan kalea, 6, conocido como "Baigera", actualmente gestionado por el Departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento para la realización de actividades o la derivación de servicios de su competencia.

El inmueble objeto del presente convenio está debidamente inscrito en el Inventario Municipal de Bienes Inmuebles con el número 1.1.00003.

II. Esta asociación contra el cáncer, creada en 1953 y declarada de utilidad pública desde 1970, tiene como objetivo compartir e intercambiar conocimientos y capacidades en la lucha contra el cáncer en su sede de Gipuzkoa, así como prestar la mejor atención posible a las personas que conviven

con el cáncer, para lo que canaliza diversas actividades. Entre ellas se encuentran -atención psicológica individual y grupal tanto para enfermos como familiares, -atención social, -terapias para dejar de fumar, -préstamo de material ortopédico, - Voluntariado de acompañamiento, - Cuestación, -campañas de prevención, -talleres, -paseos saludables y/o venta de lotería.

A nivel de Gipuzkoa esta Asociación ha trabajado durante 33 años. Actualmente cuenta con 13.476 socios y participan 980 voluntarios que trabajan con la Asociación. Cuenta con seis sedes en todo el territorio y se ha presentado en este Ayuntamiento el proyecto de creación de una nueva sede en la localidad de Azpeitia.

*El contenido del proyecto se incorporará como anexo al convenio.

III. Este proyecto se alinea con el programa municipal de promoción de la autonomía personal y de prevención y respuesta a las necesidades personales y familiares derivadas de la dependencia. De esta manera, el departamento de Servicios Sociales podrá trabajar en estrecha colaboración con la Asociación y los ciudadanos podrán participar en estas actividades que ofrece la Asociación.

IV. En virtud de lo expuesto, y siendo conscientes de que la cesión supondrá un beneficio para la ciudadanía de este municipio, suscriben el presente convenio de colaboración con arreglo a los siguientes:

## ACUERDOS

### PRIMERO.- Objeto

El presente convenio tiene por objeto la cesión de uso del local número 3 sito en la tercera planta de la edificación conocida como "Baigera" situada en Enparan kalea nº 6, así como del mobiliario y enseres existentes en el mismo.

La asociación podrá utilizar el local dos días a la semana: lunes y miércoles.

La cesión de uso será gratuita y en ningún caso puede entenderse que dicho derecho sea un derecho económico o rentable a favor de ninguna de las partes.

El objetivo de la cesión es compartir e intercambiar conocimientos y capacidades en la lucha contra el cáncer para los ciudadanos de Azpeitia y su

entorno, así como prestar la mejor atención posible a las personas que conviven con el cáncer. Para ello la Asociación podrá llevar a cabo diversas actividades (las recogidas en el apartado II).

El objetivo es de interés social y redunda en beneficio de los ciudadanos de este municipio

**SEGUNDO.- Obligaciones del Ayuntamiento.**

Azpeitiko Udala
ALKATETZA

1.- El Ayuntamiento cede a la Asociación, con carácter provisional, el uso del local especificado para dos (2) años, prorrogables por otros dos.

2.- El Ayuntamiento no dirige ni aprueba la actividad a realizar en el local cedido. La asociación no tiene ninguna relación de dependencia con el Ayuntamiento. No obstante, el Departamento de Servicios Sociales podrá colaborar estrechamente con la Asociación en el caso de que necesite ayuda para gestionar situaciones relacionadas con el cáncer.

Ambas entidades tendrán la obligación de suscribir el convenio que sea necesario en el marco de la legislación reguladora de la protección de datos, y en todo caso se solicitará al ciudadano la autorización necesaria para compartir sus datos (este convenio se firmará en el plazo máximo de un mes desde el inicio de la actividad).

3.- Las reparaciones y reformas para el mantenimiento estructural del local corresponden al Ayuntamiento, entendiendo por tales las que afecten a la estructura del edificio, fachadas, tejados y tomas de servicio exteriores, siempre que se deriven del uso normal y ordinario del local.

4.- Serán de cuenta del Ayuntamiento todos los gastos que origine el uso del local. En particular, se hará cargo del pago de los suministros de electricidad, agua, gas, calefacción y limpieza.

**TERCERO.- Obligaciones de la Asociación contra el Cáncer de Gipuzkoa.**

1.- La Asociación contra el Cáncer de Gipuzkoa deberá ocupar el local en un plazo máximo de DOS (2) MESES y mantenerlo en funcionamiento durante el resto del plazo, hasta la finalización del plazo de dos (2) años de cesión o, en su caso, de dos (2) años prorrogados.

2.- La Asociación contra el Cáncer de Gipuzkoa deberá velar por los espacios de uso exclusivo y común y, en general, por el conjunto del

inmueble, así como por el mobiliario, siendo responsable de los daños que puedan ocasionar sus miembros y/o usuarios.

3.- La Asociación contra el Cáncer de Gipuzkoa sólo podrá realizar la actividad por la que se cede el local.

4.- Se deberá presentar una vez al año en el Departamento de Servicios Sociales un informe-memoria sobre la situación y realización del programa quc la asociación desarrolle en la sede de Azpeitia, valorando los resultados obtenidos.

**CUARTO.- Extinción del Convenio.**

El convenio se extinguirá por la expiración del plazo previsto en la cláusula segunda, el incumplimiento de las restantes obligaciones asumidas por cualquiera de las partes, previa denuncia escrita con una antelación mínima de un mes, o la apreciación por cualquiera de las partes de la concurrencia de causas que impidan su cumplimiento.

**QUINTO.- Naturaleza del Convenio.**

El presente convenio de cesión de uso tiene naturaleza administrativa y, en cuanto a su naturaleza legal, se fundamenta en el artículo 9 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos dcl Scctor Público (LCSP 2017), por lo que no será de aplicación directa, si bien sus principios serán de aplicación para resolver las dudas y lagunas que puedan surgir durante su vigencia (art. 4 LCSP 2017).

En consecuencia, las cuestiones litigiosas que surjan durante la vigencia del presente convenio serán resueltas por la jurisdicción contencioso-administrativa.

****

Y ratificando el contenido del presente Convenio, lo firman en el lugar y fecha señalados en el encabezamiento.

| **AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA** | **Asociación AECC** |
| --- | --- |
| Azpeitiko Udala<br>ALKATETZA | |
| NAGORE ALKORTA ELORZA | JUAN MANUEL ORMAZABAL JORDANA |